

HITZ BITAN

GALIZIA. «Fronte nazional espainola» salatu dute

Egun nazionala ospatu dute milaka galiziarrek Santiagon eginiko bi manifestazioetan

Agentziak | SANTIAGO

Galiziako Aberri Eguna ospatzeko milaka lagunek hartu zuten parte atzo Santiago hiriburu kaleetan egin ziren bi manifestazioetan. 15.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte BNG Bloque Nacionalista Galego eta Nos Unidade Popular alderdi independentistak — bakoitzak bere aldetik — deituriko bi manifestazioetan.

Santiagoko kale nagusietatik egin zuen BNGk manifestazioa *arelas de cambio* —aldaketarako nahia— lelopean. Martxan Galiziaz kanpoko hainbat taldek hartu zuten parte, EAJ eta EA, besteak beste. Bukaeran ekitaldi politikoa egin zen eta Xose Manuel Beiras BNGko eledun

eta Xunta Galiziako Gobernu Autonomorako hautagaiak jendetzari hitz egin zion.

Espainiako PSOE Alderdi Sozialista Langile Espainiarra eta PP Alderdi Popularra salatu zituen Beirasek, nazionalisten aurka «fronte nazional espainiarra» eratzeagatik. «Itxuraz terrorismoaren aurkako itun baten aitzakiarekin, fronte nazional espainiarra eratu dute Estatuko nazionalismo guztien aurkako errukirik gabeko oldarraldi xenofoboari ekiteko, antzinako *movimiento nacional*-a berriz sortuz», esan zuen.

Santiagoko Alamedatik aterata Praza do Touralen bukatu zen, bestalde, Nos Unidade Popular alderdiaren martxa. Gaur o futuro, conquistar la inde-



LAVANDEIRA JR. / EFE

Xose Manuel Beiras, Santiagoko manifestazioaren ostean egindako ekitaldian bildutakoak agurtzen.

pendentzia —etorkizuna irabazi, independentzia konkistatu— lelopean eginiko manifestazioan Batasuna eta Britainiako Emgann alderdietako ordezkariak hartu zuten parte.

Bukaeran independentzia eta sozialismoaren aldeko hitzaldia egin zuen Mauricio Castro eledunak.

Santiagoko katedralean, bestalde, ekitaldia egin zuten agin-

tari zibil eta militarrek. ETaren aurkako adierazpenak egin zituen Xose Sanchez Bugallo Santiagoko alkateak, Manuel Fraga Xuntako presidentea buru izan zuen ekitaldian.

EKIALDE HURBILA

Hamas erakundeko kide bat hil dute soldadu israeldarrek, tanke batetik jaurtitako misilekin

Hamas erakunde palestinarreko kide Sale Darauze (38) hil zuen atzo Israelgo Armadak Nablusen tanke batetik botatutako jaurtigaien bidez. Darauzeri kotxean zihoala eraso zioten soldaduek. Guztira lau lur-misil jaurti zituzten haren kontra. Operazioa Israelek militante palestinarrek hiltzeko azken hilabeteotan bultzatutako planaren ondorioa da.

KOLONBIA-ESTATU BATUAK

Washingtonen Kolonbian dituen tropak ez gehitzea erabaki du EEBetako Kongresuak

Estatu Batuek Kolonbian dituzten zibilak eta militarrek gehitzearen aurkako erabakia egin zuen atzo Kongresuak. Kolonbian duten presentzia gutxitu behar zela esan zuen John Conyers demokratak, hura «beste Vietnam bat» bihurtu ez dadin.

IRLANDA

Bihar jakinaraziko dute Dublinek eta Londresek beren proposamena

Irlanda eta Erresuma Batuko Gobernuek bihar jakinaraziko dituzte bake prozesua bizkortzeko adostutako neurriak. Plana Ostiral Santuko Akordioa sinatu zuten alde guztiei helaraziko diete.



MICHEL LIPCHITZ / AP

FRANTZIA

Maurice Papon kolaborazionista askatzeko eskatu dute bi lehen ministro ohiek

Maurice Papon II. Mundu Gerran juduen deportazioan lagundu eta gizateriaren kontrako krimenen konplizea izateagatik kartzelaratuak kolaborazionista indultatzeko eskatu dute Raymond Barre eta Pierre Mesner lehen ministro ohiek. Paponek 91 urte ditu, eta 10 urteko zigorra ezarri zioten 1998an. Askapena «arrazoi humano eta medikuengatik» eskatu dute orain.

Chiracen ondasunen deklarazioa emango diete epaileei

Frantziako Diputatuen Ganberak Jacques Chirac presidentearen ondasunen deklarazioaren berri emango die epaileei. Chiracek bere bidaia pribatuak estatuaren diruarekin ordaindu ote zituen ikertzen ari dira auzitegiak, eta datu ekonomiko horiek funtsezkoak izan daitezke kontu hori argitzeko.



AP

INDONESIA

Baliteke gaur ateratzea Abdurrahman Wahid kargugabeturiko presidentea Jakartako jauregitik

Astelehenean kargugabetu zuten Abdurrahman Wahid —argazkian— Indonesiako lehendakari ohia gaur presidente jauregitik atera liteke. «Wahid Estatu Batuetara lehenbailehen alde egiteko prest dago», esan zuen atzo Umar Wahid presidente ohia anaia eta haren sendagile taldeko buruak. Jauregian itxi zen Wahid astelehenean, Legebiltzarrak ustelkeria eta agintera-ko gaitasun eza leporatuta kargugabetzea erabaki zuenean.

BERUETEKO KONTZEJUA

MENDIA IXTEKO OBRAK EMATEKO LEHIAKETA

Berueteko Kontzejuko Juntak, 2001eko uztailaren 20ko bilkuran hala erabakita, enkantera deitzen du mendia ixteko obrak emateko.

Emateko modua: Lehiaketa publikoa.

Prozedura: Negoziatua, prentsan iragarkiak jarrita.

Zeregina: Mendia ixteko lanak.

Kontrataren aurrekontua: 9.782.176 pta. (BEZa barne).

Behin-behineko bermea: kontrata bidezko aurrekontuaren %2a.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.

Proposamenak aurkezteko: Berueteko Kontzejuan, enkantera iragarkia prentsan agertu eta hurrengo 14 eguneko epean.

Proposamenen irekitzea: proposamenak aurkezteko epea bukatu eta handik lau astegunera, 13:00etan.

Interesa dutenek eskura dute baldintza administratiboaren orria Berueteko Idazkaritzan.

Berute, 2001eko uztailaren 23a. Alkatea, Juan Bta. Arrarás.

ARRANO TABERNA

JO TA KE, DESKANTSURIK GABE,
LURDES, PEDRO JOSE, ELOI ETA JUANJO,
GURE ARTEAN EUKI ARTE...

SORALUZE

Tel.: 943 75 24 09